

ATERPEAK WEBGUNE BERRIA DU

Katedraleko Aterpeak webgune eguneratua du uda honetan (www.alberguecatedral.com). Berritu egin da webgunearen estilo bisuala eta funtzionala. Horri esker, nabigatzea askoz erakargarriagoa eta erosoagoa da; bai ordenagailuen bidez, baita gailuen bidez ere, responsive teknologiari esker. Era berean, erreserbak egiteko motorra pertsonalizatu da. Santa Maria Katedrala Fundaziotik kudeatzen da guztiz, eta sortzen diren beharren arabera egoki daiteke.



Aldaketek onurak ekarri dituzte erabiltzaileentzat; izan ere, hemendik aurrera, bezeroentzako gunea egongo da erreserbari buruzko kudeaketak egiteko.

Laburbilduz, Alde Zaharreko proiektu honen arabeko webgunea dugu orain, urtero 11.000 lagunei zerbitzua eskaintzen diena. Proiektu honek Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza izan du.

HARRIAREN IBILBIDEA

Ohikoa den bezala, hiriko Erdi Aroko merkatuarekin batera, irailaren 28an, larunbata, Harriaren ibilbidearen XII edizioa egingo da; Axarte (Trobiñuko Konderrian) eta Arabako hiriburua batzen dituen bidea. Axarte herri txikia da, ia biztanlerik gabe, eta Gasteizko mendien sekulako ikuspegia du. Bertako harrobietatik datoz Arabako hainbat elizen harriak; esaterako, Santa Maria Katedralekoak.

Egun horretan, udalerrri biak batuko dira, interes historikoa eta tenpluaren interes artistikoa beste elementurekin uztartuta: inguruko paisaia, eremuko geografia, eta, are gehiago, historikoki harria Gasteizera eramateko erabilitako bideak. Goiena mendi taldearen gidak izango dira bertan.

Informazio gehiago eta erreserbak: Katedraleko Bisitarien Zentroa edo 945 255 135
Prezioa: 6€, 3€ bazkideak.



Ensemble Sanginetok itxiko du Kontzertuan eta irekita zikloa

berriak
Triforio-tik

Aurtengo Kontzertuan eta irekita zikloari amaiera emango zaio irailaren 14ean Santa Mariako atarian Ensemble Sangineto bikotearen eskutik. Adriano eta Caterina anai-arreba bikiak dira, Michele Sangineto musika-tresna sortzaile famatuaren seme-alabak. Sanginetok 40 urte baino gehiago darama italiar Errenazimenduko maisuen artelan eta freskoetan agertzen ziren europar tradizioko musika-tresnak sortzen, hala nola harpa zeltak, Viggiano harpak, salterioak eta bestelakoak. Bada, antzinako musikaren bidez hasi ziren anai-arrebak musikara hurbiltzen, a-

itak egindako musika-tresnekin: haurrak zirela ere, Erdi Aroko eta Errenazimenduko musika jotzen zuten.

Bere garaiko soinuekin bat eginda, proiektu musikal honen tradizio europarra berriro interpretatzen du eta berreskuratu, ikuspegi modernoarekin. Horretarako, musika-tresna tradizionalekin hainbat modutan esperimentatzen dute. Etengabeko eboluzioan dagoen proiektu aldakorra da: moldaketak jazzetik kantua gregoriarora doaz; musikaletatik musika zeltara. Carlos Núñezek ohiko kolaboratzaileak dira.



Irailak 14, 20:30
Katedralaren atarian

Sarrerak:

www.abiertoporconcierto.eus/
Katedraleko Bisitarien Zentroa

Prezioa: 10€/ 6€ Fundatzaileen
Zirkuluko bazkideak

Kontzertu solidarioa

Santa Maria Katedralean Easo abesbatzaren emanaldi solidarioa egongo da urriaren 4an We are like you proiektuaren baitan. Proiektuaren xedea da gaixotasun mentalak dituzten Liberiako emakumeei laguntzea. Aita Menni ospitalea elkarlanean aritzen da Monroviako Ahizpa Ospitalarioen Zentroarekin gaixotasun mentalak dituzten emakumeei laguntzen, komunitatean berriro integratzeko laguntza eskaintzen. Proiektuak Liberiako Osasun Ministerioaren, MOEren eta alorreko zenbait nazioarteko erakunderen aintzatespena lortu du. Aita Menni ospitalearen diru-laguntzekin finantzatzen da, baita elkarte, enpresa eta partikularren ekarpenekin, tartean, emanaldi hau. Jasotako zenbateko guztia helburu honetarako emango da.

MagialdiA
VITORIA-GASTEIZ

17an eta 18an Magialdia itzuliko da Katedralera. 30 minutu inguruko magia-ikuskizunak egongo dira 19:00etatik aurrera talde txikientzat. Hiru emanaldi egongo dira egunean eta ez dira gomendatzen haurrentzat. Sarrera doakoa izango da Aitzogile kalea, 97 helbidean.

XXXVII. Arabako Aintzinako Musika Astea

Antzinako musika astearen XXXVII. edizioa Santa Marian izango da berriz ere Errenazimenduko eta Barrokoko musika-errepertorio zabalarekin. Arabako Foru Aldundiak antolatua, zikloak erreferente nazionalak eta nazioartekoak ditu, baita tokiko musikari nabarmenak ere. Iraileko lehen astean izango da, Katedralean, San Pedro elizan eta Arabako beste hiru herritan.

Informazio gehiago eta erreserbak: www.araba.eus